

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

**Jendaurrean jartzea merkataritza sozietate bat eratzeko memoria, Arabako Errioxako Ur Partzuergoari atxikita dauden udal eta erakunde publikoen ur horniketa eta saneamendurako zerbitzu publikoa emateko**

Udal honek, 2018ko abenduaren 20ko ohiko bileran, erabaki zuen jendaurrean jartzea kapital osoa publikoa duen merkataritza sozietate bat eratzeko alderdi sozial, juridiko, tekniko, ekonomiko eta finantzari buruzko memoria, Arabako Errioxako Ur Partzuergoari atxikitako udal edo erakunde publikoen ur horniketa eta saneamendurako zerbitzu publikoko jarduera emateko.

Memoria hori jendaurrean jartzen da udal honen idazkaritzan hogeita hamar egun balioduneko epeaz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan egokitzat jotzen diren oharra aurkeztu ahal izateko.

Lapuebla de Labarca, 2018ko abenduaren 21a

*Alkatea*

*MAIDER MURILLO TREVIÑO*